

LEHEN MAILAKO ARRETA

DUINA, DUIN HILTZEKO

DMD-DHE elkartearen (Derecho a Morir Dignamente – Duintasunez Hiltzeko Eskubidea) defendatu izan du beti –eta halaxe defendatzen du orain ere– nor bere biziaren jabe izatea, eta horrenbestez, babes kritikoa ematen dio Eutanasia Arautzeko Lege Organikoari (LORE, gaztelaniazko sigletan), zein Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE, Boletín Oficial del Estado) argitaratu baita 2021eko martxoaren 25ean. Legea bide onean egindako urratsa da, baina oraindik lan asko dugu aurretik.

LORE onetsi denetik, heriotza duina eskubide zibil berri bat da, Osasun Sistemaren prestazioen baitan sartu berria; Osasun Sistemak hiltzeko laguntza bermatu behar dio askatasun osoz eta kontzienteki hala eskatzen duen pertsona orori, baldin eta uste badu une horretarako duen bizitza ez dela duina, arrazoi hauetakoren batengatik:

* Gaixotasun larria, kronikoa eta ezintasun eragilea, eta/edo gaixotasun larria eta sendaezina.

DMD–DHE elkartearen uste dugu erakunde publikoen ardura dela eskubide berri hori gizarte osoari zabaltzea, osasun-, hezkuntza- eta gizarte-esparru guztietan.

Gure ustean, honako hauek dagozkie, besteak beste, Euskal Osasun Sistema Publikoari:

- Bere gain hartzea onartu berri den Eutanasia Arautzeko Lege Organikoak (LORE) esleitzen dizkion eginkizunak.

- Eskura dituen askotariko baliabideak sustatzea eta/edo beharrezkoak direnak ematea (ekonomikoak, materialak eta osasun-langile eta -profesionalak), prestazio berria ahalik eta baldintzarik onenetan ezar dadin, nola ospitaleetan, hala norberaren bizilekuan ere, bizilekua egoitza edo etxebizitza partikularra den inporta gabe.

- Herritarrei, oro har, eskubide berriari buruz helarazi beharreko informazioa planifikatzea eta ematea.

- Osasun-langileei eskubide berriaren eta eskubide horren prestazioaren inguruan behar duten prestakuntza antolatzea eta helaraziko zaiela bermatzea.

- Herritarrei borondatezko heriotza duinerako eskubidearen berri ematea eta, ildo horretan, Aurretiazko Borondateen Agiria egin eta erregistratzeak dakartzan abantailen berri ematea, kontuan hartuta osasun-langileek erraz eskura dezaketela herritarrek erregistratutako azken borondateko xedapenei buruzko informazioa, erabiltzaile bakoitzaren historia klinikoaren bidez.

- Osasun-langileei eta herritarrei eskatzea tresna hori erabil dezatela, onerako den neurrian, bai erabiltzaileentzako, bai eta, oro har, osasun-langileentzako ere.

Gure ustez, Osasun Administrazio Publikoari dagokio eginkizun horien aplikazio praktikoa, eskubide zibil berria Osasun Sistemaren Zerbitzu Komunuen Zorroan sartu den aldetik.

DMD–DHEk kalitatezko zerbitzu publikoen alde egiten du, bizitza osoan zehar, bai eta bizitza amaitzeko prozesuan ere (baldin eta bizitzak ondasun izaera galtzen badu), pertsonaren duintasuna bermatuko dituzten zerbitzu publikoen alde, betiere norberaren balio pertsonalak aintzat hartuta, eta borondatez hiltzeko nahia errespetatuko delarik.

Lehen Mailako Arreta funtsezkoa izango da Eutanasian Legearen aplikazioan, bertako langileek zuzen-zuzen ezagutzen dituztelako hiltzeko laguntza eskatzen dituztenak, eta tratu humanoa eta gertukoa dutelako beraiekin.

LEHEN MAILAKO ARRETA

DUINIK GABE,

HERIOTZA DUINIK EZ

ATENCIÓN PRIMARIA DIGNA

PARA MORIR DIGNAMENTE

Uno de los objetivos de DMD–DHE (Derecho a Morir Dignamente – Duintasunez Hiltzeko Eskubidea) ha sido siempre y es también ahora la libre disponibilidad de la vida por cada una de las personas que así lo consideren necesario para ellas mismas, y por ello apoya críticamente la *Ley Orgánica de Regulación de la Eutanasia*, publicada en el Boletín Oficial del Estado el 25 de marzo de 2021. Esta ley es un paso adelante, pero queda mucho trabajo todavía.

La LORE es un nuevo derecho civil que pasa a formar parte de las prestaciones del Sistema Sanitario que ha de garantizar la ayuda a morir a toda persona que libre y conscientemente lo solicite en base a la consideración de que su vida ya no es digna de ser vivida por un:

*** Un padecimiento grave, crónico e imposibilitante y/o una enfermedad grave e incurable.**

En la Asociación DMD–DHE consideramos que es responsabilidad de las **Instituciones públicas** difundir este nuevo derecho a toda la sociedad, en los distintos ámbitos sanitario, educativo y social.

La Sanidad Pública Vasca tiene que:

- Asumir las funciones que le asigna la recién aprobada Ley Orgánica de Regulación de la Eutanasia (LORE).

- Potenciar los recursos de diverso tipo de los que está dotada y/o facilitar los que sean necesarios (económicos, materiales y de personal sanitario y profesional) para que esta prestación sea implantada en las mejores condiciones posibles, tanto en centros hospitalarios como en el propio domicilio, sea esta una residencia o el domicilio particular.

- Planificar y desarrollar la información de este derecho a la población en general.

- Organizar y garantizar la formación necesaria para todo el personal sanitario en torno a este nuevo derecho y a su prestación.

- Informar a la población del derecho a una muerte digna voluntaria y, en esa línea, sobre las ventajas derivadas de elaborar y registrar un Documento de Voluntades Anticipadas, teniendo en cuenta el fácil acceso para el personal sanitario a la información sobre disposiciones de últimas voluntades registradas por la ciudadanía, a través del historial médico de cada persona usuaria.

- Instar al personal sanitario y a la ciudadanía a utilizar dicha herramienta, en la medida en que redunde en beneficio de las personas que los suscriben en particular, y del personal sanitario en general.

Entendemos que la aplicación práctica de esas funciones corresponde a la Administración Pública Sanitaria, en tanto en cuanto la prestación del nuevo derecho civil pasa a formar parte de la cartera común de servicios del Sistema de Salud.

DMD–DHE apuesta por unos servicios públicos de calidad que garanticen la dignidad de la persona a lo largo de la vida y en el proceso de final de ella, cuando la vida deje de ser un bien, en base a los valores personales de cada cual, respetando la voluntad de una muerte voluntaria.

"La Atención Primaria tendrá un papel fundamental en la aplicación práctica de la LORE por su conocimiento de la persona que solicita ayuda para morir y de relación humana y cercana con ella.

SIN ATENCIÓN PRIMARIA

DIGNA

NO HAY MUERTE DIGNA